



Eman hegoak euskarari



Euskarazko irakurgaiak aurtengo Getxoko Komiki Azokan

Proposamen ezberdinak datoz Mikel Begoña omenduak idatzitako komiki berriarekin batera

JOSEAN MORLESÍN MELLADO

Getxoko Komiki Azokaren XXI. edizioa martxan da. Urriaren 1a arte bisitariak bunbuiloz eta binetaz inguratuko dira berriz ere, komikigintzaren erakustoki eta topaleku garrantzitsu honekin gozatzeko. Merkataritza-gunea Areetako Geltokia plazan dago eta Romo Kultur Etxean hainbat jarduera eskainiko dira. Gure lurraldearen barruko eta kanpoko ekoizpenen berri izateko aukera aparta dugu hau, bertakoan artean, euskaraz argitaratu direnak ere topa ditzakegularik.

Alde horretatik, nobedadeak aipatzen hasi baino lehen, esan beharra dago Azokak Mikel Bego-

ña gidoilari euskalduna omendu duela Ana Miralles irudigile mardildarrarekin batera. Mikelen ibilbidea ez da bakarrik komikien gidoigintzan nabarmentzen, euskal komikigintza eta bere historiaren aparteko dibulgatzailea dugu gainera. Aurten Harriet argitaletxeak argitara emandako 'Hiru etxe Santa Monikan' komikia aurkeztu du Iñaket marrazkilariarekin batera. Azken honen estilo grafiko fresko eta dotorea Mikelen gidoiarekin uztartzen da irakurlea 1946ko Hollywooden eta bere inguruetan murgilarazteko. Bata bestearen ondoan dauden hiru etxek hiru istorio ezkututzen dituzte: Bate-tik, Ralph izeneko gidoilari bere

gidoirik bikainena idazten dihardu. Ondoko etxea kasino baten atrakatzailaren ezkutaleku bihurtzen da hirugarren etxean Ingrid Bergman eta Robert Caparen idilioa aurrera doan bitartean.

Jarraian, zinemaren Mekako urrezko arotik urrundu eta gaur egunera gatz 'Surflaria' komikiarekin. Uxue Alberdik idatzitako testuak Amaia izeneko pertsonaia du protagonista. Hamar urte lehenago desagertutako lagun eta maitale baten aztarnen atzetik doa. Bide horretan kontakizunak gai interesgarriak jorratzen ditu, bizitza eta heriotzaren artean kulunkatuz. Proposamena borobiltzeko, Susanna Martin irudigilearen tra-

zu irekiak maisuki egituratzen dira konposizio trebe eta eragin-korretan. 2020ko urritik 2023ko ekainera arte Xabiroi aldizkariak atalka argitaratutako istorio hau Ikastolen Elkarteak kaleratu berri du orain liburu gisa.

Egileek gaur 17:30ean aurkeztuko dute azokan, Xabiroi aldizkariaren koordinatzailea den Dani Fano komikigileak moderatutako saio batean.

'Artxipelagoa' komikiarekin etorkizuneko Euskal Herri distopiko batera jauzi egingo dugu orain. Klima hondamendiaren ondorioz itsasoak ia irentsitako munduan euskal paisaia osoa urpean dago mendi-tontorrek izan ezik. Elkarrek argitaratu duen narrazio hau izenburu berdineko fikziozko podcast arrakastatsu eta sarrituan oinarritzen da. Xabier eta Martin Etxeberriaren gidoiaren erritmo biziari Alex Sanviren marrazki bikainak gehitzen zaizkio, Sedya-sek emandako koloreekin batera. Konbinazio horrek, oro har, aben-

tura guztiz erakargarria eskaintzen digu.

Jatorriz euskarazkoak diren nobedadez gain, berriki euskaratutako komikiak ere topatuko ditugu. Harriet argitaletxeak Fran-



tziatik 'Dortokaren Promesa' eta 'Lehoi-groa' komiki sailen zenbaki berriak dakartzkigu. Horrez gain, Kabe argitalpen-zigiluari esker, Japoniatik ekarritako 'Girls' Last Tour' mangaren hasiera irakurtzeko aukera izango dute euskal otaku edo mangazaleek, 'Dinosaurs

Sanctuary' eta 'Heroines Game' sailen jarraipenekin batera.

Gure irakurgai zerrenda osatzen bukatzeko, ezin ahaztu aurtengo euskaraz argitaratu diren gaituzteko komikiak. Argia, Astiberri eta Harrietek liburu interesgarriak kaleratu dituzte urtean zehar. Beraz, gogoan izan aurreko lerroak, ekitaldiaren programa arretaz kontsultatu eta ez ahaztu egile asko beren lanak sinatzen ibiliko direla. Gozatu euskaraz mintzo diren komikiekin.

Ekofeminismoaz

PALOMA RODRIGUEZ-MIÑAMBRES

Erein argitaletxeak Marlen Haushofer idazle austriarraren eleberririk ospetsuena, 'Horma', euskaraz aurkeztu digu. 1963an argitaratu zen eta Arthur Schnitzler Saria irabazi zuen urte hartan. Doris Lessingek eta Elfriede Jelinekek goraiatu dute eleberri (distopiko) hau ekofeminismoaren aintzindarizat hartua izan baita.

Istorioa sinplea da: andrazko protagonista Alpeetako etxola batera joaten da; adiskideak herri-tik bueltatzen ez direnean, haien bila abiatu eta horma ikusezin bat tupustean agertzen da etxolako lursailaren muga. Isolatuta, animaliak izango ditu lagun konfinamendu horretan, gizakirik ezean.

Hortik aurrera, lehen balio zuten objektuak, teknologiarekin lotuak eta gizakiak ekoiztiak, bigarren planuan geratuko dira. Hasierako harri-duratik onarpen lasai batera igaroko da eta inposatutako bizimodu bakartian au-

rrera segitzeko indarra aurkituko du. Ez dago etsipen arrastorik bere bakardadean; denboraren poderioz aurreko bizitza lausotuz joango zaio: bi alabak, adiskideak, bere etxea. Egunerokoaz txostena idaztea erabakiko du, giza existentziaren kontzientzia hartuz eta haren esanguran sakonduz.



HORMA
Marlen Haushofer.
Itzultzailea:
Naroa Zubillaga.
Erein. 288 or.
22 euro

Eleberriak interpretazio ugari eskaintzen du; ez dakigun zerbaitek, konstatzen ez den hondamendiren bateg, zibilizazio arrastoa ezabatu du eta protagonistak kultura-ondasunak alboratu eta naturara itzuli behar du. Izadiaren bilakaera gupidagabea -baina abegitsua ere- xehatzen du idazleak harekin dugun harremanaz birpentsatzeko aukera ematen duelarik. Naturaren ikuskizunean Thorearen 'Walden'en oihartzunak antzeman daitezke baina ikuspegi feministatik, 'mikrokosmos matriarkala' izendatu daitekeena.

Haushoferren prosa zintzo eta artifiziorik gabekoa euskarara heltzen zaigu Naroa Zubillagaren itzulpe-naren bitartez, tentsio narratibo ongi adierazten duena, gertakarien deskribatzen faktiko, lehor eta zehatzean baitatza.

Garraio publikoa

ARANTXA URRETABIZKAIA



Hasieratik onar dezaket garraio publikoaren erabileraz esan behar dudana ez dela zientifikoa. Ez dago atzetik zenbakirik ez neurketa zehatzik. Behaketa baino ez da, eskarmentuaren ondorio, ikusi dudana, bizi izan dudana. Zientziak ere badu zerbaitek behaketatik, baina hitz handiegia iruditzen zait esan behar dudarentzat.

Lehen puntua da garraio publikoan sartzeko, nonbait, txartelarekin batera, sakelako telefonoa eskatzen dutela, ez aukera gisa, ezinbestekotzat baizik. Bestela, ez legoke ulertzetik nola ia ehuneko ehunak daraman telefonoa eskutan. Gelditzen dira batzuk paperean irakurtzen dutenak, gelditzen dira ere bidaia bista hutsunean finkaturik egiten dutenak, baina salbuespen dira.

Mugikorra eskuan, garraio publikoaren erabiltzaile gehienak emakumeak dira, izan trenan, autobusa edo metroa. Adin guztietako emakumeak, gaztari zahartzarora. Gizonak, berriz, gutxiago izateaz gain, ez dira adin guztietakoak, gaztetxoak bai, are gazteak eta, ondoren, hutsune nabarmena zahartzaroraino. Gizon helduek ez dute garraio publikoa erabiltzen, nonbait, nahiago autoa.

Horrek esan nahi du gobernatzen gaituztenek ez dutela garraio publikoa erabiltzen. Noski, ezinezko litzateke goi-kar-guentzat, ez ordea hortik beherakoentzat. Hori bai, horiek zenbakiak dituzte gertatzen dena ulertzeko, baina behaketa zuzenak eskaintzen duena galtzen dute.

Jatorriari dagokionez, itxuraren arabera behintzat, biztanleriaren batz bestekoan baino altuagoa da jatorriz etorkinak direnen kopurua. Eta hor aldatzen da gizon-emakumeen arteko proportzioa, jatorriz etorkinak diren gizon helduek ere erabiltzen dute garraio mota hori.

Ez ditut ikusi Europako hainbat hiriburutan ikusi izan ditudan pertsona dotoretuak, antzokira edo operara joateko apainduak. Horiek ere ez dute, hemen, garraio publikoa erabiltzen.

SALDUENAK

FIKZIOA

1 Miñan.

Amets Arzallus/ Ibrahim Balde. Susa.

2 Freeport.

Ander Odriozola. Elkar.

3 Oso latza izan da.

Xabier Mendiguren. Elkar.

4 Olivetti.

Aitziber Etxebarria. Erein.

EZ FIKZIOA

1 Irunberri 1990.

Pako Aristi. Erein.

2 Pantailen garaipena.

Iñigo Martínez. Elkar.

3 Mandamentu hipermodernoak.

Iñigo Martínez. Elkar.

4 Emakumeak arraza eta klasea.

Angela Davis. Elkar.